

ZORNOTZA. Gitxitasun psikikoa daukien pertsonei dago zuzenduta



AITZIBER BASAURI
Begoña Azarloza alkatea eta Ricardo Ansotegi Gizarte Ongizate diputatua ituna sinatzeko momentuan.

Gitxituen Eguneko Zentroa eroateko ituna sinatu dabe

Udalak eta Foru aldundiak sinatu barri dabe lankidetzaz hitzarmena

Aitziber Basauri

Gitxitasun psikikoren bat daukienendako Eguneko Zentroa eroateko lankidetzaz ituna sinatu dabe Zornotzako Udalak eta Aldundiak. Nafarroa zentroan dago Eguneko Zentroaren kudeaketa —40 pertsonarendako lekua dauka— Udalak eroango dau. Aldundiak, barriz, 20 plaza hartuko dauz bere gan, eta, Gizartekintza Sailaren bitartez, zerbitzu horren erabiltzaile izan leitekezan aukeratuko dauz; beti be, «autonomia mailea» eta «preminak» kontuan hartuta. Halan azaldu dau Ricardo Ansotegi Gizarte Ongizateko diputatuak.

Diputazioak hartuko dau bere gan 20 plaza horreen mantentimendua; eta 12,40 euroan zehaztu dau prezioa, eguneko eta pertsonako. «Erabiltzaileek ordaindu beharrekoa, baina, familiaren diru sarrerearen arabera izangoda. Baina, gehienez, 12,40 euro», esan dau Ansotegik. «Batenaz beste, jasotako zerbitzuaren kostuaren %13 emongo dabe erabiltzaileek». Ganerantzekoa Aldundiak hartuko dau bera gain.

Gitxitasun psikiko «neurritza» edo «larria» daukien pertsonei bideratuta dago zerbitzua; eta Durangalde osora edegitako zerbitzua izango da. Halako zerbitzua eskaintzen dauen

lehenengo zentroa da eskualdean. Begoña Azarloza alkateak eta diputatuak itunaren garrantzia nabarmendu dabe. Azarlozaren berbetan, «herriko ezinduei erantzun egokia emongo jake. Halako zerbitzuak hobetzeko aurrerapausoa da, eta horretarako dagoen borondatea barresten dau».

Beste alde batetik, Nagusien Egoitza eregi gura dabela aurreratu dau Azarlozak. Arraibi auzoan 5.000 metro koadroko lursaila dauka Udalak, herritar batek emonda. «Hil honetan edo urtarrilean Aldundiagaz akordioa adostea itxaroten dogu, eta legegintzaldiaren barruan ekitea».

LEMOA. Arainegun hil zan pelota eskolarean sortzaileetarik bat izan zana

Pelota eskolan 18 urtean jardun dauen Jesus Muñoz azken agurra emon deusie

A.B.

Lemoako Pelota Eskolarean sortzaileetarik bat izandako Jesus Muñoz, Txutxin, azken agurra emon deusie Lemoan. Pelota eskolan 18 urtean beharran jardundakoa arainegun zendu zan; eta, atzo, egin eben hileta elizkizuna. Familiakoak, lagunak eta pelota eskolako kide eta ikasleak be batu ziran Muñoz azken agurra emoteko. Kirol-prestatzailea eta ardu-

radun tekniko izan da Muñoz, Lemoako Pelota Eskolan; eta lehenengo urteetan lehendakaria be izan da. Gaur egun, 20 bat pelotarik jarduten dabe eskolan. «Irakasle be jardun dau gaztetxoak urteotan Ibai Eraizkinegaz batera. Aurretik, berak bakarrik jarduten eban. Bere eskutik urten dabe herriko hainbat pelotarik Galarzak, Leizak...». Halantxe azaldu dau Jose Ignacio Olivaresek, lau urteotan pelota eskolako lehen-

dakaria izandakak. Jesus Muñozegaz batera hasi zan Olivares pelota eskolan, orain 18 urte; eta Muñozek egindako beharra nabarmendu dau. «Behar handia egin dau pelota eskolan, dana egin dau», azpimarratu dau.

Lemoako Pelota Eskolak Muñoz omenaldia egiteko asmoa dauka. «Bere beharra gogortzeko omenalditxo egin gura geunke, hemendik hiru bat hileran», adierazo dau Olivaresek. Ganeratu dau be bai Arratiako pelota txapelketaren finalean, omenaldia egiteko aukerea aztertzen diharduela. Finalak datorren urtarrilaren 18an dira jokatzeak.

GIZARTEA. Eskola laguntzeak izango dira

Gizarte hezitzaile bi hartu gura dauz Durangaldeko Amankomunazgoak

A.B.

Gizarte hezitzaile bi gehiago hartuko dabez, Durangaldean, umeakaz, gazteakaz eta familiakaz gizarte eta hezkuntza alorrean esku hartzeko plangintza kudeatzeko. Durangaldeko Amankomunazgoak, Agintza giza ekimenaren alkatere kooperatiboagaz batera daroa zerbitzu hori. Halantxe erabagi dau Durangaldeko Amankomunazgoak izan dauen azken batzarrean.

Kale hezitzaile bi eta familia, gazteria eta umezaroa jorratzen dabezan beste bi pertsona dagoz, orain, zerbitzua aurrera eramateko. Laster beste pertsona bi hartuko dabez. Biak be egun erdiko lan orduak izango dabez. Maria Larrauri Durangaldeko Amankomunazgoko lehen-dakariak azaldu dauenez, «laguntza gehiago emotea da helburua; gehienbat, es-

kola-laguntzea», ganeratu dau.

Arreta psikosoziala emoteko zerbitzua eskaini gura dabe

Beste alde batetik, arreta psikosozialaren zerbitzua kontratatuko admisnitrakino klausula berezien eta teknikoien orriak be onetsi dabez. «Urrikan hasteko egitasmoa; eta, preminazkoa deritxagu psikologo bat harteari. Balorazioak egiteko eta gizarte laguntzaileak orientetako. Baita laguntza psikologikoa emoteko be familiantan, banaka zein taldeka», esan dau Larraurik. «Orain, gizarte hezitzaileek egiten dabe behar hori, baina, ez da euren beharra».

Urte biko kontratua izango da, luzatu leitekeana; baina ez lau urte baino gehiago. Eta, urteko, gehienez, 14.500 euroko aurrekontua zehaztu dabe. Lehiaketara atarako dabe zerbitzua.

LABURREAN

ABADIÑO

Euskal film laburren zikloa eskainiko dabe, gaur, Kultur Etxean

Abadiñoko Kultur Etxeak euskal film laburren zikloa gertatu dau gaurko. Hiru film eskainiko dabez, arrastiko 20:00etatik aurrera. Maria Zamakolak zuzendutako *Usoa film* laburra emongo dabe lehenengo, euskeraz da hori. Eta, jarraian, *Hombre sin hombre* eskainiko dabe, Michel Gaztambideren film laburra, hain zuzen be. Zikloa amaitzeko, barriz, Borja Cobeagaz zuzendutako *La primera vez* film laburra proiektatuko dabe. Azken behar biok gaztelaniaz dira.

ZALDIBAR

Euskal Fondoak GKEren bitartez, Nikaraguara 6.000 euroko laguntza bideratuko dabe

Zaldibarko Udalak 6.000 euroko laguntza emongo dau Nikaraguako Mozaran herrian garatzen diharduen Segundo Montes proiekturako. Euskal Fondoak GKEren bitartez bideratuko dabe laguntza. Horixe azaldu dau Nerea Garitaigoitia alkateordeak. «Bertan 100 bat etxebizitza eregi gura ditue, eta proiektuaren 3. zatia da aurrera atarateko emongo dogu laguntza». Larrialdi laguntza lez 4.896 euro bidaliko ditue Argentinara.

AGENDA

ELORRIO

Zinekluba: David Cronenberg zuzendariaren *Spider* pelikulea emongo dabe, gaur, Arriola kultur aretoan. Emonaldia 20:15ean hasiko dabe.

IURRETA

Musika: Bartolome Ertzilla musika eskolakoek kontzertua eskainiko dabe, gaur, Nagusien Egoitzan. Goiuriko Ama alkatere gertatuko XI. Kultur Astearen

barruan eraturako ekitaldia 18:00etan hasiko dabe. Ostean, 18:30ean, Bizkaiko Parkinson alkatereko abesbatzeak emongo dau saioa.

BERRIZ

Antzerkia: *IMERSOko bidaiak* antzezina eskainiko dau, gaur, Durangoko Nagusien Egoitzako antzerki taldeak. Hirugarren Adineko Udal Jardunaldien barruan eratu dabe ekitaldia, eta Berrizko Nagusien Egoitzan eskainiko dabe 17:30ean. Ostean, luntxa izango da.